



ANE URANGA ▶ DIETISTA

# «Haurtzarotik sustatu behar dira elikatzeko ohitura egokiak»

«Janaria sailkatzeko ohiturarekin hautsi behar dugu; ez dago janari on ala txarrik», dio Albizturgo dietistak



L. GOROSTIDI

## LEIRE GOROSTIDI

Hamabost urte daramatza Ane Urangak (Albiztur, 1972) nutrizioaren inguruko hainbat hitzaldi eskaintzen, «dietak prestatzea baino garrantzitsuagoa da nutrizioa zer den irakastea». Hernaniko udaletxeak antolatutako sukaldaritza ikastaroan, nutrizioaren inguruko hitzaldiak ematen dihardu. **Ogibidea ala afizioa?** 1992an nutrizio ikasketak amaitu eta berehalakoan kon-

turatu nintzen ez nuela lan askorik izango, hau dela eta, hasera batean ogibide izan behar zuenak, zaletasun izaten amaitu du.

### **Zein irizpideren arabera prestatzen dituzu dietak?**

Pertsonaren hainbat ezaugarri hartu behar dira kontuan, egoera nutrizionalez ohartzeko. Altuera, pisu, odol analisis ez gain, galdeketa bat egitea komenigarria litzateke egoera psikologikoaz ohartzeko. Egoera animalikoa oso garrantzitsua da.

### **Zuk prestatutako dieta bat zertan ezberdintzen da beste-ekiko?**

Ez dute berezitasun nabarmenik. Barietatean oinarritzen diren dieten alde nago. Janari bakoitzak bere aberastasunak ematen dizkio gorputzari eta jakina da ez dela dieta magikorik existitzen. Sedentarisismoa alde batera utzita, jarduera fisikokoaren garrantzia azzimarratu nahiko nuke. Ez dago dieta eraginkorrik kirolrik egin ezean.

### **Osagarriren batetaz baliatzen zara emaitzak hobetzeko asmoz?**

Ez dugu produktu berezirik saltzen beste hainbat kasuen antzera. Ez dago gorputzaren beharrez guztiak asetuko dituen osagarririk. Halaber, produktu naturalak erabili izan ditugu hainbat kasutan.

### **Zer ezberdintasun dago gaztetxo eta heldu baten nutrizioaren artean?**

Bizitzan zehar, beharizanak aldatuz eta gutxituz doa. Ume baten elikadura bereziki zaindu beharreko gaia da eta etxetik kanpo eginiko otorduen jarraipena beharrezkoa litzateke, errepikapenean ez erortzeko. Nutrizio orekatu eta aldakorra izan behar dute behar guzti erantzuteko. Helduen kasuan, ogibidea kontuan hartzeko faktore garrantzitsua da eta eginiko esfortzu fisikokoaren araberako elikadura beharko dute. Hala ere, beharrak asetzen jarraitu behar dira nahiz eta kaloria gutxiago kontsumitu.

### **Anorexia kasurik tratatu al duzu?**

Ez zait anorexia kasurik tratatzea egokitu. Hala ere, hainbat eskolek, anorexia kasuren bat somatu dutenean, hitzaldiak emateko proposamena egin ditate. Oso garrantzitsua da prebentzioz jokatzeko. Anorexia duen pertsona batek laguntza nutrizionalaren aurretik laguntza psikologikoa behar du. Horrelako kasu baten aurrean, ez da nahikoa hitzaldi bat ematea. Beste mundu batean sartzen dira eta ez dituzte esaten ari garen hitzak entzuten. Laguntza berezitu behar dute.

### **Desinformatuak al gauden nutrizioaren inguruan?**

Elikadura oso subjektiboa da. Badirudi jende guztiak argi duela dieta orekatu bat zertan oinarritzen den, baina argi gelditzen da ez dela horrela, eta izugarriko akatsak egiten ditugu. Jendeak iritzi asko dauzka bai janari eta baita ohituren inguruan ere. Orokorrean, desinformatuak gaudela uste dut.

**Jateko ohitura txarrik ari al dira ezartzen Euskal Herrian?** Presaka bizi gara eta geroz eta denbora gutxiago eskaintzen

## EGUNERO

«Bat-bateko emaitzak ez dira existitzen; egunerokotasunean zaindu behar dugu elikadura»

## GORPUTZA

«Nutrizioa eta argaltasuna ez doaz eskutik; gorputzaren fisionomia mugatua dago»

## OSASUNA

«Ez dugu barneko osasuna deskuidatu behar, itsura fisiko zehatz bat lortzeko helburuarekin»

diogu otorduak prestatzeari. Janari azkarraz geroz eta gehiago baliatzen gara. Badirudi jende guztiak argi duela dieta orekatu bat zertan oinarritzen den, baino argi dago ez dela horrela eta izugarriko akatsak egiten ditugu. Jendeak iritzi asko dauzka bai janari eta baita ohituren inguruan ere.

### **Noraino osasuna eta noraino estetika?**

Azken hamarkadetan zabalduko bizi estiloaren eragina pairatzen hasiak gara. Izugarriko garrantzia ematen diogu kanpoko edertasunari eta komunikabide desberdinetan agerturiko pertsonaia famatuen neurriak izatearekin amesten da. Ahantzi egiten zaigu, gorputz bakoitzak bere egitura propioa duela eta nahiz eta pisua gal dezakegun jaiotzen garen unetik genetikoki mugaturik gauden. Argaltasunak ez du zertan nutrizio orekatu edo osasuntsu baten isla izan. Hainbat kasutan, barneko osasunari eta elikadura orekatu bati uko egiten zaio itxura fisiko zehatz bat lortzeko helburuarekin.

### **Zer deritoxo moda munduak ezartzen dituen estereotipoen inguruan?**

Erru guztia ez dauka modaren munduak, faktore ezberdinek eragiten dute. Gaur egungo gi-zarte honetan, itxura fisikok geroz eta garrantzia gehiago dauka eta geroz eta errazagoa da edonolako aldaketak egitea. Hausnarketa bat egin behar dugu eta kontuan hartu, erabat aldatu nahi izateak pertsona moduan ez onartzea dakarrela. Berdintasun batez zaindu beharko genituzke itxura fisiko eta barneko osasuna. Bata zainzteak bestearen hobekuntza bultzatuko du.

## DI-DA BATEAN ▶

### **Zure janaririk gogokoena?**

Marrubiak.  
**Gosaria, bazkaria ala afaria?**

Gosaria.

### **Norekin?**

Bikotearekin.

### **Leku berezirik?**

Edozein toki lasai.

### **Gutxirik?**

Txokolatea.

KALE KANTOITIK ▶  
JOXEMI SAIZARUrteko  
soinu  
bilduna

**A**spaldi honetan gustuen irakurri dudan liburuko (Fernando Trias de Bes-en *El coleccionista de sonidos*) protagonista zuen trebeziarekin Tolosan eta Tolosaldean urtean zehar soinu bilduma berezia osatuko luke.

Inauteri doinuak dira gehien eta ozenen entzuten direnak gure kaleetan, gure jai jendetsuenetan eta baita urte osoan zehar ere. Joan den asteburuan adibidez. Ez da aitzakia handirik behar horretarako. Sanjoanetan berriz zortziko, txilibitua eta dantzarien txintxarriak jasoko lituzke bere belarrietan. Hemendik egun guxira hasiko den Abesbatza Lehiaketan, mundu osotik euskaraz eta beste hizkuntzetan abes-terea etorritako taldeak eta haiei entzuten gozaten duten entzuleen txalo zaparradak. Babarrun festan tripa-zaleen gorputzen melodia haizetsuagoak. Titirijai txo-xtongilo jaialdian umeen algarak, ikarak, dardarak trapuzko protagonisten gorabe-herekin. Tolosandbluesen kontrabaxu, bateria, saxo eta saxofoi tertziopelozko ferrekak.

Baina urteko doinu finko horiekin batera, tarteka doinu berriak jasoko lituzke gure soinu bildumazaleak. Asteburu honetan bertan adibidez. Herriko eta eskualdeko talde gazteen doinu rockeroenak entzun ahal izango dira Berazubiko jaie-tan (jaien antolatzaile diren gazte lokalek elkarte gastro-nomikoen gero eta funtzio gehiago ari dira hartzen). Gaur goizean San Esteban krosetako korrikalarien arnasestua entzun ahal izango dira. Eta gauean, puruen keak eta patxaranak lakartu-tako bertsolarien zortziko eta hamarrekoak. Bihar ber-ri, mundu osoko doinuek Santa Maria plaza beteko dute. Ipuinartean II proiektu-aren inaugurazioaren festa izango baita, hemengo eta kanpoko kulturen arteko elkartrukearen adibide pare-gabea dena. Kirolegian ere tesitura beretsuan mugituko dira asteburuan zehar konti-nente desberdinetako futbo-lariak. Usabalen jokatu-ko baita lehenabiziko aldiz, Adiskidetasunaren Txapel-keta.

## HIRIGINTZA ▶

Hilaren 24an egingo  
dute Voith-Gorostidiko  
etxebizitzaren zozketa

Tasatuetarako 565 eskatzailetatik, 292k lortuko dute bat; orotara, aurreikusitakoak baino 68 gehiago eraikiko dituzte



Oscar Renedo, Aitziber Lazkano, Jokin Azkue, Jon Aldazabal eta Onintza Lasa aurkezpenean. E. EZEIZA

## ESTI EZEIZA

Zazpi hilabeteko atzerapena- ren ondoren, hilaren 24an, 11:00etan, Leidor antzokian izango da Voith Gorostidi eremu-ko etxebizitza tasatuen lehen zozketa. Egun horretan jakingo da, zerrendan izena emanda dauden 565 eskatzaileetatik, nortzuk eskuratu ahal izango duten etxebizitza tasatuetako bat.

Guztira, 319 etxebizitza tasatu eraikiko dituzte, baina horietatik 27, Voith Gorostidi eremu-ko bizilagunak errealojatzeko erabiliko dira. Beraz, zozketa bidez 292 bizitza tasatu adjudikatuko dira. Honek esan nahi du, bi eskatzailetatik, gutxi gorabehera batek lortuko duela horietako bat. Bestalde, gaurtik aurrera, interesatuek udaletxeko iragarkien taulan edo Udalaren webgunean ([www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net)) ikusi ahal izango dute, zozketarako zein zenbaki egokitu zaien.

Leidorren egingo den zozketa publikoa era honetan egingo da: zenbaki bakoitzaren bola-txoak loteria-ontzi batean sartuko dituzte, eta banan bana ateratzen joango dira, hau hutsik geratu arte. Hau da, zerrenda osatzen duten 565 zenbaki- aterako dira. Hala ere, le-

hendabiziko 292ak izango dira «sartutako», gainontzekoek itsaron zerrenda osatuko dute, egokitu zaien hurrenkeran.

Hilaren 24an, hautatuen zerrenda zein den jakingo da, baina honek ez du esan nahi, hautatu horiek adjudikatariorak izango direnik. Behin, hauen izenak jakinda, hurrengo hilabetean berriro hautatuen datuak aztertuko dituzte. Toki-babeseko etxebizitzak adjudikatzeko oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak. Hautatutakoren batek ez balituzke baldintzak bete-ko, edo atzera egingo balu, itxaron zerrendako hurrengoari emango litzaioke aukera.

## Bigarren zozketa

Baldintza guztiak aztertu eta gero, hilabeteko epean gutxi gorabehera, bigarren zozketa egingo da martxo arrearrean. Udalaren aurreikuspenen arabera, abenduan izango da bi-

garren zozketa hori. Hemen, garajeak, etxebizitzak eta tras-telekuak esleituko dira adjudikatarioen artean. Zozketa horretan kontuan hartuko da zenbat kidek osatzen duten bizikidetzaren unitate bakoitza. Hori horrela, lehendabizi zozketatuko direnak, hau da, etxebizitza handienak, kide gehien dituzten unitateentzat izango dira. Etxebizitza handirik gelditzen bada, hiru kideko unitateen artean zozketatuko da, gero bi kide-ozosatutako artean eta, azkenik, kide bakarrekoren artean. Bizitza handien zozketa bukatu ondoren, hau da, lau eta hiru gelakoen ostean, bi-gelakoak banatuko dira, eta amaitezko, gela bakarrekokoak.

## Prozesuaren luzatzea

Hilabete ugari igaro dira Voith-Gorostidi eremu-ko etxebizitzaren proiektua argitaratu eman zene-tik. Hasiera batean, lehen zozketa joan den martxoan egitea

## ZENBAIT DATU ▶

- 1. zozketa.** Publikoa izango da. Leidor antzokian egingo da hilaren 24an, 11:00etan.
  - 2. zozketa.** Hautatuen datuak berraztertu ondoren, abendu aldean egitea aurreikusten dute.
- Etxebizitza kopurua.** Babes ofizialekoak 148 izango dira. Etxebizitza tasatuak, 319 eta libreak, 276. Guztura: 743.
- Tasatuetarako eskatzaile kopurua.** 565.

espero zen, baina hau atzertuz joan da. Honen aurrean, zurrumuru ugari zabaldu ziren herrian. Honen aurrean, «kudeaketa urbanistikoa zela erantzule» azaldu zuen Jokin Azkue zinegotziak. Bere esanetan, «prozesu bat jarraitu behar zelako atzeratu da dena, baina urte bukaerarako hasiko dira eraikitzea lanak». Bestalde, azaldu zuen abuztu amaie-ran etorri zela aldaketa partzia-laren onarpena eta «orain, pro-zedurak aurrera jarraitzen duela». Hala, ez zegoela inongo «arazorik eta ezkutuko gauzik» gaineratu zuen.

## 68 etxebizitza gehiago

Eusko Jaurlaritzak eta Tolosa-ko Udalak Voith-Gorostidi eremu-ko eraikigarritasuna %10 handitzea adostu dute, herriko etxebizitza-eskaria murriztuko eta eskaintza eskarira egokituko. Hala, hasieran 675 bizitza eraikitzeko asmoa bazego-en ere, azkenean 743 izango dira. Aurrenean baina, 13 babes ofizialeko gehiago, 29 tasatuak eta 26 libreak.

Erregistratutako eskaerak aztertuta, datuak erakusten dute, kide bateko eta biko bizikidetzaren unitateek egin dituzte-la eskaera gehien; %78 eta %15, hurrenez hurren. Baina Tolosako Udalak etxebizitzaren %96k baino gehiagok hiru gela edo gehiago izatea proiektatu-ta zeukan. Hala, datuak aztertu eta gero, eskaintza eskarira egokitze-ko asmoarekin eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak horri buruz emandako gomendioak haintzat hartuta, Udalak erabaki du eremu horretako etxebizitza kopurua handitzea. Aldaketen baitan, bi gelako etxebizitza gehiago egingo dituzte, hiru gelakoen kaltetan.

Emakumea behar da  
bulegoko lanak egiteko

Arratsalde 16:00etatik 21:00etara.

Deitu telefono honetara: 620 692 530



ERAKUSKETA ▶

# Indiako emakumeen egoeraz

## Kalkuta Ondoan erakundeak antolatu du erakusketa Haur Liburutegian

IÑIGO TERRADILLOS

Kalkuta Ondoan gobernuz kanpoko erakundeak antolatu-ta, Indiako emakumeen egoerari buruzko erakusketa dago ikusgai hilaren 19ra arte Tolosako Haur Liburutegian.

Errotako 3. solairuan dago kokaturik erakusketako gune nagusia. Bertan hainbat panelen bidez Kalkuta Ondoan erakundeak Indian dituen proiektuen berri ematen dute. Panel hauek argazkiekin osatu dituzte eta horretaz gain informazio ugari ere badute. Panelez gain, 3. solairuan ikus-entzunezko bat ere jarri dute, eta Indiako

emakumeen eguneroko jardunak zein diren gertutik ezagutu daitezke.

Bestalde, 3. solairuan bertan, liburutegiak Indiari buruz dituen liburuen gida ere jarri du eskura, eta solairu horretan ezezik, besteetan ere Indiari buruzko argazkiak jarri dituzte. Halaber, lehen solairuan *Batzon gaituena* izeneko bideoa ere ikusgai dago.

Erakusketa ikusteko eskolako bisita gidatuak antolatu dituzte, eta gainerakoentzat ikusgai izango da erakusketa liburutegia irekita dagoen orduetarian, hau da, 17:00etatik 20:00etara.



**Emakumeak.** Emakumeenganako diskriminazioa izugarria da Indian. Gizonen %75 dago alfabetatuta, eta emakumeen %64,1. Politikan, eserlekuen %9a soilik hartzen dute emakumeek.



**Laguntzak.** Kalkuta Ondoan erakundeak hainbat programa gauzatzen ditu, autolaguntza eta Mikrokredituen bidez, besteak beste.



**Pobrezia eta hezkuntza.** Indian 5 emakumetarik bik bakarrik dakite irakurtzen. Joan beharko luketen 64,9 milioi neska ez dira eskolara joaten.



GIPUZKOAKO ARTISAUEN AZOKA  
**X. ARTISAVALDIA**  
FRONTONEZ BETI ALAI FRONTOIAK  
2007 ORDIZIA  
URRIAK - OCTUBRE  
12 - 13 - 14  
10:30 - 14:00  
17:00 - 20:30

ERASOA ▶

## Tren zerbitzua etenik, ezezagunek trenbidearen katenaria eraso ondoren

07:30etik eguerdira bitarte ez zen Renferen tren zerbitzurik izan bi noranzkoetan



Eguerdian hasi ziren trenak normaltasunez ibiltzen. A. IMAZ

ERREDAKZIOA

Tren zerbitzu etenik egon zen atzo goizean, 07:30etik eguerdira bitarte, hainbat ezezagunek trenbidearen katenaria eraso ondoren.

Anoeta eta Villabonondorioz, bi noranzkoetan ez zen tren zerbitzurik izan goizean zehar. Bigarren eraso bat ere egiten saiatu ziren Ikaztegieta eta Tolosa artean, baina kasu horretan ez ziren ondorioak hain larriak izan. Eraso hauek «Euskal Herrian jasaten ari garen egoera salatzen» direla azaldu zuten ezezagunek.

Renfek autobus zerbitzua jarri zuen abian Tolosa eta Donostia arteko tren geltokietatik. Ibilaldi luzeko trenen kasuan ere, autobusak jarri zituen Renfek.

BERTSOLARITZA ▶

## Gipuzkoako Txapelketan bost dira final-laurdenetan

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-laurdenetan nor izango diren erabakita dago. Eskualdeko Unai Muñoz, Bixente Gorostidi, Jexu Mari Irazu, Amaia Agirre eta Aitor Mendiluze dira bertsolariak, guztira bost.

Bixente Gorostidik Getariako saioan lehenengo egin zuen. «Saio goxoa» izan zela adierazi zuten adituek. 10eko txikian lehen posturako borrokatuko zela argi utzi zuen. Gorostidiren erregularitasunak eraman du final-laurdenetarako txartela.

Ataungoan Arkaitz Zelaia izan zen; «hotz samar joan zen», adituen ustez. «Zaleei ere kosta egin zitzaion bertsoekin gozatzea, azkeneko bapo geratu diren arren». 10eko txikian Velardek eta Zelaia eginikoa azpimarratu zuten: «Polita izan zen».

ALBIZTUR ▶

## Hilaren 20rako Udalak Bilbora ibilaldia antolatu du

ERREDAKZIOA

Hilaren 20rako Albizturko udaletxeak Bilborako bidaia antolatu du herritarrentzat. Izena 16a baino lehen eman behar da ohiko lekuetan.

08:30ean plazaatik abiatuko dira. Bazkaria Otsotegin egingo dute, eta dena 20 euroren truke izango da. Autobusa beteko balitz, 60 urtetik gorakoek izango lukete lehenetasuna.

ANOETA ▶ AHT

# Abenduaren 2an herri kontsulta egingo dute AHTri buruz

Herritarrak informatzeko hainbat ekitaldi egingo dituzte; Udalak eta beste hainbat eragilek parte-hartzea eskatu dute



Herenegun egindako prentsaurrekoan AHT Gelditu! Elkarlana eta beste hainbat eragile izan ziren. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Abenduaren 2a. Anoetan zuzenean eragingo duen makro-proiektuaren gaineko herri kontsulta egingo dute, herritarrak trenaren gaineko iritzia eman dezaten. AHTren obrak dagoeneko hasiak dira, eta Tolosaldeko beste hainbat herritan bezala, Anoetan ere eragingo du. Herenegun iluntzean prentsaurrekoa eskaini zuten Anoetako hainbat eragilek: Udala, Anoetako Gazte Asanblada, AHT Gelditu! Elkarlana, ezker abertzalea, LAB...

Martxan dira dagoeneko; herri kontsulta honi Amalurrak

AHTri ez, eta zuk? deitu diote. Mural batean ere irudikatu dute eta kamixetak ere badira, lelo honekin. Azaroaren 18ra arte informazio kanpaina egingo dute. Gero, azaroaren 19tik 25era bitarte eztabaida prozesua eta azkenik herri kontsulta egingo dute. «Herri honen etorkizuna bermatu nahi badugu guri dagokigu arbasoek utzitako lurak hurrengo belaunaldi-ziurtatu eta orain arteko herri-giro aparta duen Anoeta bat uztea», adierazi zuten prentsaurrekoan.

«Adierazpen alderdikoi eta demagogikoz josiriko propaganda kanpainari informazioa

esaten diote, baina errealitatean ez da horrela, oso informazio gutxi baitago». Alegian herri kontsulta egin zutenean bezala (apirilaren 1ean), gaur egun oraindik informazio eza da nagusi.

Alkatearen hitzak

«Inposatu nahi zaigun proiektu honen aurrean egin dezakegun gauzarik onena ariketa demokratiko bat egitea da, herriari galdetzea... Herriak hitza hartuko du», adierazi zuten Periko Peñagarikano, Anoetako alkatea.

AHTren lanak hasiak dira eta

HAINBAT DATU ▶

**Proiektua.** Abiadura Handiko Trena.

**Kalteak.** Isasti eta Larratzeko belazeetan, zarata, barrera efektua.

**10.000 milioi euro.** AHTk gastu sozialaren murrizketa eragingo du euro horiekin. 50 urterako aurrekontuaren parekoa da.

**Informazioz ez.** Lautik hiruk informazio gutxi edo ezer ez dakiela erantzun du.

**Eraikuntzak hasita.** Araban, Luku eta Urbina artean hasi ziren iaz.

**Geltokiak.** Oraindik ez da jakina non izango dituen geltokiak, ezta izango dituen ere.

«sekulako kalteak sortuko ditu Euskal herriari, gure etorkizuna zeharo baldintzatuz», Periko Peñagarikano alkatea esan bezala. Herriari hitza eman nahian antolatu dute abendu-ko herri kontsulta. «Gure herriari AHTk izango duen eragina zein den jakiteko eskubidea ukatu digute», gogoratu zuen alkatea, «eztabaida bera ere ukatuz».

Eusko Jaurlaritzari ere zuzendu zitzaion alkatea: «Herriari hitza eman behar dio eta herritaren erabakia errespetatu behar du». Mezu honekin batera, Eusko Jaurlaritza «zeren beldur da? Herritarren hitzaren beldur? Hauen erabakia-riaren beldur?»

Parte-hartzea, ezinbestekoa

Guztion parte-hartzeari garrantzia eman zioten agerraldikoek, «denon indarrak bakarrik geratuko baitugu proiektu txikitzaile hau». Dagoeneko ari dira lanean informazioa emateko eta herritarrak gaiarekin jartzeko.

Abenduaren 2a baino lehenagoko egunetan dagoen informazioa, eztabaidak, hitzal-diak eta abar antolatuko dituzte, herritarrek herri kontsultan erantzuna emateko garaian jakin dezaten zer erantzun.

hitza

## Harpidedunen txokoa

Larunbatean, urriak 13, arratsaldeko 17:00etan Tolosako Leidor Aretoan Golden Apple Quartet eta Kanpingags taldeek **KARABAS** antzezlan eskainiko dute. HITZAK harpidedun ordaintzaileen artean **2 sarrera pare zozketatu ditu**. Hauek dira **irabazleak**:

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue. ZORIONAK!

- ▶ 30509 Izaskun Zarategi (Villabona)
- ▶ 29268 Jon Iraola (Ibarra)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea





POLITIKA ▶

# Mobilizazio Eguneko «helburua bete dela» esan du LABek

«Sentsibilizazioa, protesta eta salaketa, debekuetatik haratago» eraman dutela esan du LAB sindikatuak



Errepresiorik ez! Euskal Herriak hitza eta erabakia lelopean burutu zen LABen Mobilizazio Eguna. A. IMAZ

## ASIER IMAZ

LAB sindikatuak, *Errepresiorik ez! Euskal Herriak hitza eta erabakia* lelopean Sentsibilizazio eta Mobilizazio Eguna antolatu zuen atzo Euskal Herri guztian zehar. Tolosaldean eta Leitzaldean, lanuzteak burutu ziren lantegietan, nahiz eta Nafarroako hainbat herritan, Gobernu Ordezkaritzak manifestazio eta elkarretaratzeak debekatu. Horien artean Leitzza aurkitzen zen.

Langileez gain, Gazte Independentistek egindako deialdiari jarraituz, hainbat ikasle kalera irten ziren 11:00etan LABen deialdiarekin bat eginez. Mobilizazioak iragan aste-ko atxiloketen inguruan kokatu behar dira, izan ere, LABek «atxiloketak gogor salatu» zi-

tuen atzokoan; «gure herria pairatzen ari den jazarpen politiko, judicial eta polizialarekin behingoz amaitu beharra dago. Horregatik uste dugu, eragile politiko, sindikal eta sozialen aldetik erantzun zabala goa eman beharra dagoela; Euskal Herriaren aitortpena eta bere eskubideen errespetuan oinarritutako konponbide politikoak exijitzeko».

## Balorazio «ona»

LABek balorazio «ona» egin zuen atzoko egunaren inguruan, modu ezberdineko ekintzak burutu zirela azpimarratu zuelarik; «lanuzteaz gain, iragarkien banaketak, hitzaldi informatiboak, manifestazioak, elkarretaratzeak eta pankarta zintzilikatzeak burutu ziren

besteak beste». Helburua hori zela gehitu zuten, «salaketa modu ezberdinetan txoko guztietara zabaltzea» eta «lortu dutela» azpimarratu zuten Egunaren balorazioa egiterako garaian.

Azkenik, Tolosaldean eginko elkarretaratzeen lehen datuak zabaldu zituen atzokan LAB sindikatuak: «Adu-nako Unipapelen 13:30etik 14:30etara; Tolosako eta Leaburuko udaletan 12:00etatik 13:00etara; Zizurkilgo Udalean 11:30etik 12:30era asanblada; Ibarrako Apattarreka poligonoan, Gorostidi, Voith eta Obekin 40 pertsona; Irurako Emusin 40 lagun; Tolosako SAMen 25 pertsona; Elduaingo Smurfiten 10 pertsona eta Asteasuko Bost, Echesa eta Leibin 70 pertsona inguru».

IBARRA ▶ AIZKORA

## Euskal Herriko aizkolari onenen artean Otaño

Ibartarrak etzi jokatu du Lehen Mailako Aizkolari Txapelketako finala Donezteben

A. IMAZ

Unai Otaño ibartarrak hilaren 14ean, etzi, jokatu du Euskal Herriko 1. Mailako Aizkolari Txapelketako finala Donezteben (Nafarroa) eskoletako frontoian. 12:30ean hasiko den Txapelketa honetan, abuztuaren 26an Lakuntzan (Nafarroa) jokaturiko kanporaketan sailkatu ziren lehenengo sei aizkolariak hartuko dute parte. Nafarroako ordezkariak, Floren Nazabal eta Juan Jose Lopez izango dira. Beste laurak berriz, gipuzko-

rrak izango dira: Luis Txapartegi, Joxe M. Olasagasti, Jose Migel Peñagarikano eta Unai Otaño ibartarra.

Aizkolari bakoitzak 12 enbor moztu beharko ditu: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta lau oimbiko.

Floren Nazabal etxarriarra izango da txapela etxera eramateko faborito nagusia. Unai Otaño Gipuzkoako Lehen Mailako txapela kasualitatea ez zela izan erakutsi nahiko du. Ibartarrantzat, egiten duena eginda ere, denboraldi bikaina izango da aurtengoa.

IBARRA ▶ KULTURA



## Plazako Txontxo eta Donperu baserriak behera doaz

A. Imaz ▶ Aranzadi Zientzia Elkartek 2004ean Ibarrako Kultur Ondorearen Inbentarioan sartu zituen Donperu eta Txontxo baserriak botatzeko lanak atzo goizean hasi ziren. Hauen lekuan, etxebizitzak egingo dituzte, nahiz eta data zehatzik ez egon. A. I.

## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

PILOTA ▶

# Aurrera Pilota Eskola Burlatako eta Lizarrako txapelketetan buru-belarri

Lizarran hiru partida jokatu dituzte eta Burlatan bi, eta Jon Jaunarena eta Anartz Olano Logroñon eta Iruñean ariko dira, beste txapelketa batzuetan



Leitzako Txapelketan aritu ondoren, Aurrerako pilotariak Lizarran eta Burlatan lehiatuko dira. HITZA

NAIARA GARZIA

Aurrera Pilota Eskola jada buru-belarri dabil bi txapelketetan, Burlatakoan eta Lizarrakoan, hain zuzen ere. Bestalde, Anartz Olanok eta Jon Jaunarenak Logroñon eta Iruñean jokatu dute.

Aurreko batean pilota eskolako arduradunetako batek azaldu zuen bezala, «Leitzako Txapelketak denboraldi baten amaiera eta hurrengo denboraldiaren etorrera adierazten du». Beraz, Aurrerakoak denboraldi berriari hasi berriak dira.

Lizarrako eta Burlatako txapelketarekin estreinatuta dute denboraldi berria. Asteburu honetan hiru partida jokatu dituzte Lizarran, eta beste bi Burlatan.

Lizarrako lau t'erdian larunbatean, 10:00etan Iñaki Saralegik jokatu du, eta 12:00etan,

Mikel Hernandorenak. Igandean, aldiz, Ibai Gil ariko da, 17:00etan.

Burlatako Txapelketari dagokionez, alde batetik Anartz Olano eta Asier Gilek jokatu dute eta bestetik, Jon Iparragirek eta Ibai Gilek. Bi norgehiagokak 09:30ean izanen dira, gaur bertan. Pilota eskolako arduradunek azaldu dutenez, «Burlatako pilotalekua oso luzea da eta aurrean eta atzean jokatzen dituzte partidak, aldi berean».

Olano eta Jaunarena

Bestalde, Anartz Olanok larunbat arratsaldean Logroñon jokatu du, 16:30ean, hain zuzen. Berea bigarren norgehiagoka izanen da. Kontxi Marzol bere laguntzaileak azaldu duenez, «Titinek antolatzen duen txapelketa bat da». Errioxako beste lagun batekin Espinal eta Darioren aurka lehiatuko da. «Partida gogorra izanen da», dio Marzolek.

Jon Jaunarenak, aldiz, gaur Labriten jokatu du, Nafar Jokoen barruan eta larunbatean Lekunberrin, lau t'erdian, festak baitira.

LEITZA ▶

## Mikel Nieve, estatuko amateurrik hobereena

Txirrindulari leitzarrak denboraldi honetan puntu gehien lortu ditu lasterketetan



Mikel Nieve txirrindularia. N. G.

N. GARZIA

Mikel Nieve estatu espainiarreko txirrindulari amateurrik onena izendatu dute. Nieve berak ere egunkariaren bitartez jakin du berria.

Nievek izendapen honen nondik norakoak azaldu ditu. «Espainiako federazioan ranking bat dago, eta urtean zehar egiten dituzun lasterketetan puntuatzen joaten zara. Lasterketa guztiak ez dute puntuatzen halere, eta puntu gehiena atera dituenari nizan naiz aurten». Dena den honek ez du esan nahi Nievek lasterketa gehien irabazi dituenik. «Nahiz eta lasterketa ez irabazi, zure postuaren arabera puntuak lortzen dituzu».

Nieve otsailen hasiko da Orbea taldeekin korrika egiten. «Nik uste orain arte bezalatsu entrenatuko dudala. Ziurrenik taldeak prestatzaila eta medikua jarriko dizkigu eta haiek esandakoa egin beharko dugu. Hiru aste geldirik daramatzat eta dagoneko zerbait egiten hasteko gogoia daukat».

LEITZA ▶ POLITIKA

## «Beste aro» honetan jarraitu beharreko ildoaren inguruan mintzatu da ezker abertzalea Aurreran

Atzo gauean burrunbada egin zuten 21:00etatik 21:15era, «erantzun dinamikaren» barruan

N. GARZIA

Asteazken iluntzean Leitzako Ezker abertzaleak herri batzara egin zuen Aurreran.

Ezker abertzaleatik azaldu dutenez, «momentuko balorazioa» egin zuten batzar honean. «Momentua ez da ona, al daketa bat eman da». Prozesua «erabat» puskatu dela gehitu dute ezker abertzaletik. «Prozesua puskatu egin da, ez dago prozesurik».

Momentu politiko honi buruzko gogoeta honetan, «beste aro» baten inguruan mintzatu zen ezker abertzalea. «Beste aro batean sartu gara, eta aro berri honetan jarraitu beharreko ildoak jarri genituen mahai gainean».

Aurrera begira jarraitu beharreko ildoari dagokionez, «Anaitasunako proposamenak mahai gainean jarraitzen du, eta hori da ezker abertzaleak prozesuari soluziorako egiten

dion ekarpena. Bestalde, nazio eraikuntza indartu beharra da».

Joan den ostegunean gertatutako atxiloketak eta gero, «erantzun dinamika» bat jorratzea ezinbestekotzat jotzen du ezker abertzaleak. «Egoera zein den ikusita erantzun dinamika landu egin beharra da». Hori dela eta, atzo gauean burrunbada egin zuten herrian, 21:00etatik 21:15era. «Erantzun dinamika honen barruan

atzo gauean burrunbada egin genuen, eta gaur manifestazio-ra joanen gara Iruñera».

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Eztabaida.** Zer iritzi duzu Voith-Gorostidiren inguruan azken aldiari sortu diren zalantzez? Eman zure iritzia gure webgunean.

iragarki laburrak ▶

**SALGAI**

**Tolosa.** Etxebizitza berritua Rondilla kalean. 2. logela, komuna, egongela eta sukaldia. Dena kanpoaldera. Partikularren artekoa. 45 milioi. 686 95 90 64.

**BESTERIK**

**Zakurrak.** Arraza oneko bi zakur oparitzen ditut. 615 78 96 31.

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Berastegi.** Urari buruzko argazki rallya Berastegin. Izen-ematea eta beharrezko karreteak hilaren 14an jaso behar dira. Parte-hartzaile bakoitzari 12 argazkiko karrete emango zaio eta Berastegiko mugen barruan egi behar dira argazkiak.

**Larraul.** Larraulgo lurretik barrena ingurua ezagutzeko mendi ibilaldia antolatuta dute hilaren 28rako. Argibide gehiago, 943 693930 zenbakian.

**Tolosa.** Natural Project (Andoain) eta Gose (Arrasate) musika taldeak ariko dira 22:30etik aurrera Bonberenean. *Decimas* eta *Gose* izeneko diskoak auzokideekin dituzte, hurrenez hurren.

**Tolosa.** Areta futboleko Adiskidetasunaren Txapelketa 12 selekzioaren artean Usabal kirolegian. Partidak goiz eta arratsaldean. Finalerdiak larunbatean 17:00etan eta finalak, berri, igandean 10:30ean.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *Los cuatro fantasticos y Silver Surfer* haurrentzako filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan.

**Tolosa.** *Sigo como dios* filma emango dute Leidor aretoan, 19:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 673274.  
**Lekunberri.** Mendia, B. Aralar, 25. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)**  
 09:00-13:00. Orduoro *Info 7* irrati albiste aurrerapena.  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko Ahotza*. 13:00etatik 13:30era, *Info 7*ko albistegi nagusia.  
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).  
 20:00-21:00. *Hamaika entzuteko*. Txolarre irratiaren zehar izan denaren inguruko laburbilduma da saioa.  
 21:00-20:00. *Sound System (Molotof irrata)*. Besteak beste, musika reggae jorratzen duen saioa.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

# Betikoa... eraberritua

**TOLOSA ▶** Atzo hasi ziren Berazubi auzoko jaiak, urtebeteko atsedendiairendaren ondoren; etzi arte egitarau oparoa antolatu dute



Barraketan jende ugari bildu zen, gazteboak euren gurasoekin batik bat. ESTI EZEIZA



Txupinaren ostean, buruhandiak atera ziren kalera. ESTI EZEIZA

**ERREDAKZIOA**

**U**rtebeteko hutsunea izan nagatik, inoiz baino indartsuago heldu dira aurten Berazubi auzoko jaiak. Atzo izan zuten lehen eguna eta jai giroa etzi arte luzatuko da.

Denetarik izan zen lehen egunean. Hasiera txupinazoa-ekin iragarri zuten auzokideek. Ondoren, porteoan egin zuten auzoan zehar trikitilariekin. Trikiti doinuaren lekukoa Mulumbo taldeak hartu zuen, perkusio eta sanba doinuekin.

Afariaren ostean, herriko musika talde gazteen txanda heldu zen. Hala, bertaratuek kontzertu paregabeak entzuteko parada izan zuten bertaratuek, Homo Demens, Funtastic World eta Desordutan taldeen eskutik.

**EGITARAUA ▶**

**URRIAK 12, GAUR**  
**09:00.** Meza sakramentinoetan. Goizean herriko dultzaineroak auzoan zehar ibiliko dira kaleak alaitzen.  
**12:00.** Auzo-toka. Gizonezkoen arteko txapelketa. Goizean zehar paella prestatzea, ondoren txapelketa.  
**14:00.** Auzo-bazkaria, paella jana.  
**17:00.** Umeentzako festa.  
**19:00.** Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa.  
**22:30.** Gargantas Desgarradas, The Royal Service eta Angelays taldeen kontzertuak.

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea  
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...